



Aldizkari zk.089 2013-ko maiatzak 10, Ostirala

Agiria 26 Guztira 79

Aurreko aldizkariak

Igorlea / Laburpena

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa - Iragarriak

Abanto-Zierbenako Udala

Ibilgailuak bide publikoetan zehar igarotzeari buruzko Ordenantza.

Udalaren Osoko Bilkurak, 2013ko apirilaren 4an eginiko batzarraldian, honako erabaki hau hartu zuen:

1. Behin betiko onestea ibilgailuak Abanto-Zierbenako bide publikoetan zehar eraikinetara eta orubeetara sartzeko pasabideen Udal Ordenantza, 4.3., 10.3., 10.4., 12.c., 16.b., 16.g. eta 20.3. artikuluetan proposatutako aldaketak eginda eta 16.d., 16.e. eta 20.b.2. artikulua ezabatuta.

2. Ebazpen hau eta ibilgailuak Abanto-Zierbenako bide publikoetan zehar eraikinetara eta orubeetara sartzeko pasabideen Udal Ordenantzaren eduki osoa argitaratzea «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean», Udaleko Ohar Taulan eta webgunean. Indarraldia Tokiko Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2. artikuluan ezarritakoarekin bat hasiko da.

IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOETAN ZEHAR .

ERAIKINETARA ETA ORUBEETARA SARTZEKO .

PASABIDEEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.

ZIOEN AZALPENA.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 4. artikulua ezarritakoaren arabera, Abanto-Zierbenako Udalak beharrezkotzat jo du modu zehatz eta integralean araupetzea ibilgailuak udalerriko higiezinetara bide publikoetatik sartzeko pasabideak baimentzeko araubidea.

Ordenantza honen helburua da jabari publiko horien erabilera okerra saihesteko kontrol mekanismoak arautzea, administrazioaren jardueraren irizpideak bateratuz, segurtasun juridikoaren hatsarrea eta, beraz, herritarraren bermeak indartzeko tresna gisa.

I. TITULUA.

XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.-Xedea eta definizioa.

Udal Ordenantzak honako hau arautu nahi du: Eraikitako edo eraiki gabeko higiezinetara ibilgailuak sartzeko bide publikoaren erabilera bereziko baimenei aplikatu beharreko erregimen juridikoa eta, era berean, baimenei dagozkien eraikuntza eta seinaleztatze ezaugarriak.

Ordenantza honetan ibilgailuen pasabidetzat joko dugu jabari publikoaren alderdia, non, behar den baimena izanda, posible izango baita ibilgailuak higiezin batetik irtetea edo bertara sartzea, bide publikoa zeharkatuz.

Ibilgailuak igarotzeko baimen horri ere pasabide deituko zaio.

2. artikulua.-Aplikazio eremua.

Ordenantza hau Abanto-Zierbena udalerrri osoan aplikatuko da.

3. artikulua.-Baimen motak.

1. Baimenak mugagabeak edo behin-behinekoak izan daitezke.

a) Pasabidea mugagabea da baimenean aprobetxamenduaren iraupena zehazten ez denean.

b) Behin-behinekoa da baldin eta baimena helburu zehatz bat betetzeko lortu bada eta aprobetxamenduaren amaiera data zehatza bada. Kasu horretan, eskaeran berariaz adierazi behar da baimena behin-behinekoa dela. Halaber, adierazi egin behar da baimena justifikatzen duen helburua eta pasabidea edukitzea beharrezkoa den denbora.

Baimen batzuen zein besteen erabilera etengabea zein ordukakoa izan daiteke.

2. Pasabide iraunkorrak: Ibilgailuak eguneko 24 orduetan igaro ahal izango dira, eta ezin izango da ibilgailurik aparkatu horien aurrean.

Pasabide iraunkorraren baimena hauetan emango da:

a) Estatuaren, Eusko Jaurkitzaren, Probintziaren, Udalaren edo bestelako Erakunde eta Instituzioen Zentro Ofizialak eta Bulegoak, betiere kasuan kasuko interes orokor eta publikoko arrazoiak tartean daudenean eta erakunde horiek baimena eskatu eta Ordenantza honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztenean.

Igorlea / Laburpena

b) Garaje edo aparkaleku publiko zein pribatuak.
 c) Familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzetako garajeak.
 d) Gasolina zerbitzuguneak.
 e) Garraio zerbitzu publikoetako konpainia ustiatzaileak.
 f) Klinika, erietxeak edo laguntza zentroak, anbulantziak sartu eta irteteko.
 g) Salbuespen gisa, baimen iraunkorrak eman ahal izango zaizkie merkataritzako edo zerbitzuetako lokalei, baldin eta sarbide iraunkor horren beharra justifikatuta badago. Baimen horiek, nolanahi ere den, aukerakoak izango dira.

3. Ordukako pasabideak: Ibilgailuek, gehienez ere, egunean 12 orduz igarotzeko baimena izango dute, larunbat arratsaldeetan eta jaiegunetan izan ezik.

Aurreko ataleko kasuez gain, baimen mota hori honako hauetan ere emango da:

a) Industria edo merkataritza jardueretako biltegiak.
 b) Eraikuntza, eraispin, zaharberritze eta konpontze lanak egin behar direnean.
 c) Ibilgailuak konpontzeko tailerrak, ibilgailuen kontzesionarioak, ibilgailu erabilien salerosketa gunean daudenean.

Ezaugarri berdintsuak dituzten beste jarduera batzuk, baldin eta Udalak baimendu baditu.

Udalak zehaztuko ditu pasabidearen erabilera orduak, betiere interesdunak egindako eskaera kontuan hartuta.

Larunbat arratsaldeetako eta jaiegunetako ordukako pasabidea salbuespen egoeretan besterik ez da baimenduko, eta soilik behar-beharrezkotzat jotzen denean.

II. TITULUA.

BAIMENEN ERREGIMEN JURIDIKOA.

I. KAPITULUA.

BAIMENEI BURUZ, ORO HAR.

4. artikulua.-Arau orokorrak.

1. Ibilgailuen pasabideek Udalaren baimena izan beharko dute, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.

2. Pasabideen baimenak aukeran emango dira beti, hirugarrenei kalterik eragin gabe. Baimena emateak ez dakar eskatzaileek inolako eskubide subjektiborik izango dutenik.

3. Obrak exekutatzen ari diren ibilgailuetarako baimenak lortzeko, zintarri aldaketei eta espaloia egokitzeko obrei dagokien obra lizentzia lortu beharko da.

5. artikulua.-Baldintza subjektiboak.

1. Honako hauek eskatu ahal izango dute ibilgailuen pasabiderako baimena:

a) Jabeek edo zuzenbideak onartutako edozein tituluren bidez pasabide horietarako sarbidea duten higiezinetako bidezko jabetzat jo daitezkeen pertsonak, baita pasabideen helmuga diren jardueretan jarduten dutenek ere.
 b) Jabeen erkidegoek edo horien elkarteek, behar bezala ordezkaturak, jabetza horizontalaren araubidearen menpeko higiezin kasuan.
 c) Obregatik behin-behineko pasabideen kasuan, obrako jabeek edo ibilgailuen pasabidea behar duten eraikuntza obrak egiten ari direnek.
 d) Udalaren esleipenetan, esleipendunek.

2. Baimenak eragindako gastu guztiak eskatzaileek eurek ordaindu beharko dituzte.

3. Baimenen titularrak arduratuko dira ibilgailuen pasabideko erabiltzaileek pasabidea behar bezala erabiltzen dutela egiaztatzeaz.

6. artikulua.-Baimenaren titular aldaketak.

Pasabide baimena eskualdatzeko aukera dago. Baimenaren titular aldaketak idatziz jakinaraziko zaizkio Abanto-Zierbenako Udalari, hamar eguneko epean, aldaketa justifikatzen duen egintza edo negozioa duen dokumentua izenpetzen denetik aurrera zenbatzen hasita, Udalak horien berri izan eta emandako baimenaren datuak aldatzeko aukera izan dezan.

Jakinarazpen hori (eskualdatu nahi den baimenaren kopia erantsiko zaio) titular berriak eta zaharrak egin beharko dute, dagokion eskaera orria beteta. Hala eta guztiz ere, aurreko titularraren jakinarazpenaren orde, aldaketa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez daiteke.

Jakinarazpen hori bidali ezean, bienak izango dira baimenaren titularrari sor dakizkiokeen erantzukizunak. Udalak titular aldaketa hori jaso izana jakinaraziko die interesdunei, eskaera aurkezten denetik hilabeteko epean.

7. artikulua.-Baimenaren aldaketak.

Baimendutako pasabidearen ezaugarri fisiko edo juridikoetan eragina izan dezakeen beste edozein aldaketa balitz edo pasabidea bertan behera gelditzea eragin dezakeen beste edozer gertatuko balitz, Udalari jakinarazi beharko zaio hamar eguneko epean, aldaketa gertatzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Udalak aldaketa horren berri jaso duela egiaztatuko die interesdunei, jakinarazpena aurkezten denetik hilabeteko epean.

8. artikulua.-Behin-behineko baimenak luzatzea.

Behin-behineko pasabideen baimenak luzatuko dira interesdunak aurretik hala eskatuta, betiere bere beharra justifikatzen bada eta baimena bukatzeko aurreikusitako data zehazten bada. Nolanahi ere den, eskaera hori aurkeztu beharko da pasabidea erabiltzeko baimendu den epea bukatu baino lehen.

9. artikulua.-Baimena etetea.

Udalak behin-behineko baimena eten dezake, trafikoko gorabeherak daudelako, bide publikoan obrak egin direlako edo bestelako egoera bereziak sortu direlako: Besteak beste, ekitaldi, jai, merkatu edo azoka

Igorlea / Laburpena

tradizionalak ospatzen ari direlako.

10. artikulua.-Baimenak baliogabetzea.

1. Udalak baimenak baliogabetu ahal izango ditu kasu hauetan:

- Eman ziren helburuetara zuzentzen ez badira.
- Baimena ematea eragin zuten arrazoiak edo egoerak bertan behera geratu badira.
- Urteko prezio publikoa ordaindu ez bada.
- Ordutegiei buruzko baldintzak betetzen ez badira edo seinaleztapen egokirik ez badago.
- Trafiko gorabeherak edo bide publikoei lotutako bestelako egoera batzuk badaude.
- Pasabidea erabiltzen ez bada edo behar bezala erabiltzen ez bada.
- Lokalak pasabide mota bakoitzerako eskatutako baldintzak betetzen ez baditu.
- Ordenantza honetan edo pasabidearen baimenean ezarritako zehaztapenak betetzen ez badira.

2. Era berean, baliogabetu ahal izango da baimena ematea eragin zuen egoera desagertu bada edo gerora baimena ezestea eragin dezaketen bestelako arrazoiak agertzen badira.

3. Baimena baliogabetzearekin batera, pasabidea kentzeko, seinalea kentzeko eta Udalari itzultzeko agindua ere emango da.

4. Bestalde, ibilgailuen sarbidearen baimena baliogabetzea edo horri baja ematea eskatzen denean, lokala jada ez delako aparkaleku gisa erabiltzen edo jarduera bertan behera utzi delako, seinale guztiak kendu, espaloiko erlaitza lehengoratu eta plaka Udal Zerbitzuetan entregatu beharko da.

Udal Zerbitzuek baldintza horiek guztiak bete direla egiaztatu ondoren, eskatutako baja emango zaio eskatzaileari.

5. Udaleko zerbitzuek kendu eta baliogabetu ahal izango dituzte entregatu ez diren plakak.

II. KAPITULUA.

PROZEDURA.

11. artikulua.-Hasiera eta dokumentazioa.

1. Prozedura abiaraziko da ibilgailuetarako pasabide baimenaren eskaera Erregistro Orokorrean aurkeztzen denean. Baimenaren beharra adierazi eta justifikatzeaz gain, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Ibilgailuetarako pasabideak sarbidea ematen duen higiezinaren jabetza titulua edo horren legezko okupazioa egiaztatzen duen beste edozein titulu eta, nolana ere den, jabearen identifikazio datuak.
- Jarduera babesten duen irekitze lizentzia edo beste lizentzia mota bat, eta/edo lokala edo higiezina lehenbizikoz erabiltzeko lizentzia, kasuan kasu egokia denaren arabera.
- 1/500 eskalako kokapen planoak, higiezinaren kokapena adierazita.
- Ibilgailuak aparkatzeko eremua irudikatzen duen 1/100 eskalako planoak, honako hauek adierazita: Aparkaleku-kopurua ibilgailu mota bakoitzeko, espaloiarene zabalera, sarbidearen zabalera eta pasabidearen zabalera. Gainera, eraginen bat jasango duten hirigintza elementuak aipatu beharko dira.

Nolana ere den, ibilgailuek aurreraka sartu eta irten beharko dute beti. Salbuespen gisa, baldintza hori betetzetik salbuetsi ahal izango dira, maniobra hori egitea ezinezkoa denean. Hala eta guztiz ere, kasu horietan, ofizioz aurkeztuko da Udaltzaingoaren txostena; bertan egiaztatuko da bide publikoko trafikoaren segurtasuna ez dela murriztuko ibilgailuak atzeraka sartu edo irteteagatik.

2. Pasabidea eraikitzeko eskatzaileak obrak egin behar dituen kasuetan, dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:

- Obretan erabiliko diren materialak zehazten dituen deskripzio eta justifikazio memoria. Bestalde, ezarri beharreko segurtasun neurriak -hala badagokio-, eta obran hartu beharreko seinaleztatze eta balizatzeko neurriak adieraziko dira.
- Obraren exekuzio materialaren aurrekontua.

12. artikulua.-Tramitazioa.

1. Ibilgailuetarako pasabide baimena emateko prozedura bat etorriko da, edozein kasutan, honako izapide hauekin:

a) Dokumenturen bat falta dela antzematen baldin bada, hamar eguneko epea emango zaio interesatuari akatsa zuzentzeko edo falta den dokumentazioa aurkezteko. Bide batez, adierazi egingo zaio hala egin ezean eskaera bertan behera utzitzat joko dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 71. artikulua ezarri bezala.

b) Behin dokumentazio guztia osatuta, baimena ematen edo ukatzen duen txostena egingo da. Proposamena baimena ematearen aldekoa bada, baimenaren indarraldia, modalitatea eta beharrezkoak diren baldintza guztiak zehaztu beharko dira.

c) Organo eskudunaren ebazpena gehienez ere bi hilabeteko epean emango da, espedientea hasitzat jotzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igarota berariazko ebazpenik eman ez bada, interesdunek gaitzetsizat jo ditzakete euren eskaerak. Bestalde, eskaeraren berariazko gaitzespena arrazoitu egin beharko da.

d) Behin obrak guztiz amaituta, eskatzaileak Udal Zerbitzu teknikoekin hitz egingo du, eginiko lanak ikuskatu ditzaten eta txosten teknikoa eman dezaten.

Baimen horri dagozkion plaka bereizgarriak Udal Zerbitzuek emango dituzte, behin euren kostua ordainduta, eskatzaileak jar ditzan.

13. artikulua.-Lizentzia ematea.

1. Alkateari edo alkatearen eskumena eskuordetuta duen organoari dagokio ordenantza honetan aipatzen diren lizentziak ematea.

14. artikulua.-Debekuak eta mugak.

1. Pasabidearen baimena ematea Udalaren esku dago; baina, ez da lizentziarik emango honako kasu hauetan:

- Ibilgailuek berdegune bat zeharkatu behar dutenean.

Igorlea / Laburpena

b) Ibilgailuen sarbidea oinezkoentzako igarobide batean zehar edo 5 metrotik beherako distantzian egiten denean.

2. Ibilgailuetarako eskatutako pasabideak eragozpen fisikoren bat duenean (lorategiak, txorakoak, seinaleak, farolak, etab.) Udal Zerbitzu Teknikoek banan-banan aztertuko dute kasu bakoitza eta, azkenean Udalak baimena ematea erabakitzen badu, egokitze lanak eskatzailearen kontura egingo dira.

3. Ate bat baino gehiago duten lokalek ate bakarrerako eskatu ahal izango dute pasabide lizentzia.

III. KAPITULUA.

IBILGAILUETARAKO PASABIDEEN TITULARREN .

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

15. artikulua.-Ibilgailuetarako pasabideen titularren eskubideak.

Ibilgailuen pasabideen titularrek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Erabiltzeko eskubidea, betiere baimenean ezarritako baldintzak eta epeak beteta.

b) Titular gisa sarbidea erabiltzeko duten eskubidea, pasabidean gelditu edo aparkatutako ibilgailuek, edo bertan egon daitezkeen objektuek inolako eragozpenik gabe. Eskubide hori Udal Zerbitzuek bermatu beharko dute, betiere pasabidea seinaleztatzen duen plaka instalatuta badago.

16. artikulua.-Ibilgailuetarako pasabideen titularren betebeharrak.

Ibilgailuetarako pasabideen titularrek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Ibilgailuetarako pasabidea erabiltzen denean, baimenean eta ezar daitekeen araudian xedatutakoa betetzea.

b) Beheragunea eta espaloari dagokion zatia egoera onean kontserbatzea, pasabide osoan. Berehala exekutatzeko horretarako beharrezko diren lanak, eta Udal Zerbitzuei ematea gertatzen diren arazoak berri, pertsona eta ondasunei kalterik ez eragiteko.

c) Pasabidearen arauzko plaka (R-308 e.) instalatzea eta ibilgailuetarako pasabidea identifikatzen duen seinalea egoera onean kontserbatzea, ordenantza honetan jasotako betekizun teknikoekin bat.

d) Udalari idatziz jakinaraztea edozein titularitate aldaketa edo pasabidearen egoera fisikoaren zein erabileraren inguruko edozein gorabehera, baimenean aldaketaren bat eragiten badute.

e) Ibilgailuetarako pasabidearen baja edo baliogabetzea eskatzea, erabilera bertan behera uzten bada. Baja edo baliogabetzea Udal Zerbitzu Teknikoek emango dute, behin aurreko betebeharrak bete direla egiaztatuta.

f) Dagokion ordenantza fiskalean ezarritako tasak ordaintzea.

g) Lokalerako sarbidea eta lokala edo higiezinak ikuskatzeko baimena ematea Udal Zerbitzu Teknikoek.

III. TITULUA.

PASABIDEEN NAHITAEZKO EZAUGARRIAK .

ETA SEINALEZTATZEA.

17. artikulua.-Pasabidea seinaleztatzea.

Pasabide guztietan seinale hauek jarri behar dira ikusteko moduan:

1. Seinaleztatze horizontala:

1.1. Espaloiko pasabideak horizontalki seinaleztatuko dira marra hori baten bidez. Hamabost zentimetroko zabalera izango du eta etena izango da, berrogeita hamar zentimetroko tartetan, baimendutako zonalde osoan.

1.2. Zintarriko beheratzeak ez dira pintatuko.

2. Seinaleztatze bertikala:

2.1. Arau orokor gisa, plaka batekin seinaleztatuko da. Zehazki, finkako sarrerako atariko horman jarriko da, bide publikotik ondo ikusteko moduan eta, gutxienez, 2 metroko altueran espaloiarenean edo lurzorua mailaren gainetik, egoeraren arabera, edozein arrazoi dela-eta hori ezinezkoa denean izan ezik.

2.2. Beste leku batzuetan edo bikoiztuta ere jar daitezke, hori eragiten duten arrazoi funtzionalak edo segurtasunari dagokionak daudenean. Udal Zerbitzu Teknikoek ezarriko dute seinale-kopurua, lekua eta instalatzeko modua.

2.3. Pasabideko plakek bat egingo dute trafiko araudian (R-308 e.) ezarritakoarekin. Kasu orotan, baimen zenbakia agerian izan behar dute. Ordutegiaren arabera erabil daitezkeen pasabidea bada, pasabideko plakaren kutxatila osagarria jarriko da, ezarritako ordutegia adierazten duena.

3. Berariaz debekatzen da aparkatzea debekatzen duten bestelako plaka eta kartelak instalatzea. Halaber, debekatuta dago ofizialak ez diren seinale horizontal edo bertikalak erabiltzea eta zintarriak pintatzea.

18. artikulua.-Pasabideen ezaugarriak.

1. Pasabideen luzera ez da inola ere higiezinaren sarbidearen zabalera baino handiagoa izango.

2. Debebatuta dago ibilgailuak bide publikotik higiezinetara sartzea (eta irtetea) behin-behineko instalazioak edo elementu mugigarriak, arrapalak, zur-zatiak, etab. erabilia, berariazko baimena duten arrazoi justifikatuak daudenean salbu.

19. artikulua.-Obrak.

1. Espaloiko zintarriaren orde, material bereko pieza aurrefabrikatuak jarriko dira. Nolanahi ere den, horrek ez du eraginik izango Udal Zerbitzu Teknikoek ezarritako baldintza zehatzetan.

2. Titularrak hautatutako langile prestatuek egin beharko dituzte pasabideak eraikitzeko, aldatzeko edo kentzeko lanak. Bada, horiek egiteko, espaloiko zoladurako materiala (harlauza, hormigoia, etab.) erabili beharko da, gainerako espaloiarekin alderik egon ez dadin.

3. Eskatzaile interesdunak Udal Zerbitzu Teknikoek emandako argibideei jarraikiz aritu beharko dira. Zerbitzu horiek adieraziko dute sarbiderako zein operazio material egin behar den kasu bakoitzean.

4. Behin obrak exekutatu, Udal Zerbitzu Teknikoek horren berri emango zaie, lanak ikuska ditzaten.

5. Udal Zerbitzu Teknikoek ikuskatzea egin eta aldeko txostena eman ondoren, pasabidea seinaleztatzen duen plaka emango diote titularrari, behin obrak amaituta.

Igorlea / Laburpena

6. Ibilgailuen sartu-irtenen ondorioz udal jabari publikoan eragindako kalteak baimenaren titularren ardura izango dira. Udaleko organo eskudunak hala eskatuta, titularrek konpondu beharko dituzte eragindako kalteak, horretarako ezarritako epean. Titularrak eskakizuna bete ezean, Udalak egingo ditu egin beharreko konponketak, titularraren kontura.

IV. TITULUA.

ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

20. artikulua.-Arau hauste administratiboak.

Arau hauste administratiboa izango da ordenantza honetan ezarritakoa urratzen duen ekintza edo ez-egitea, bereziki pasabide baimenaren erabilera egokiari edo pasabidea kontserbatu eta seinaleztatzeari dagokiona.

Ordenantza hau urratzen duten arauak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke. Nolanahi ere den, ordenantza honen arabera arau haustetzat jotzen direnak arau hauste izan daitezke, halaber, hirigintzako, trafikoko eta bide segurtasuneko legedian.

a) Arau hauste arinak:

1. Baimendutako pasabidearen egoera fisiko edo juridikoan gerta daitezkeen aldaketen berri ez ematea.
2. Ordenantza honetan ezarritako seinaleak ez edukitzea kontserbazio baldintza egokietan.
3. Udalak pasabidea kentzeko eskatu zuenetik hiru hilabete baino gehiago igarotzea baimenaren titularrak plaka eman gabe.
4. Ordenantza honetako aginduei egindako beste edozein arau hauste, artikulua honetan larrizat edo oso larrizat jotzen ez bada.

b) Arau hauste larriak:

1. Ibilgailuak sartu eta irteteko erabilera bereziak espaloietan eragindako kalteak ez konpontzea, horretarako agindua jaso ondoren eta ezarritako epeekin.
2. Ez eskatzea ibilgailuen pasabidea kentzea, hori baimentzeko hartu ziren baldintzak desagertu arren.
3. Baimena lortzeko aurkeztutako dokumentu edo datuak ezkutitzea, manipulitzea edo faltsutzea.
4. Udal Administrazioak eskatutako datuak ez ematea edo datuak ikuskatzeko lanak oztopatzea.

c) Arau hauste oso larriak:

1. Pasabidea seinaleztatzea edo pasabideari dagokion plaka jartzea dagokion baimenik gabe.
2. Pasabideak eraikitzea dagokion baimena edo lizentzia eduki gabe.
3. Espaloia edo udal jabari publikoko beste edozein elementu erabiltzea ibilgailuen joan-etorrirako, Udalaren baimenik gabe.
4. Higiezinarako sarbidea errazten duten arrapalak edo elementu baliokideak jartzea, horren ondorioz udal jabari publikoaren okupazio bidegabea egiten bada eta hori erabiltzeko eskubidea duten pertsonen erabilera galarazten bazaie.
5. Eremu publikoaren edo horretako instalazio eta elementuak (higikorrek zein higiezinak) nabarmen eta larriki hondatzen edo beste pertsona batzuek erabiltzea galarazten duten ekintzak.

21. artikulua.-Zigor prozedura.

Ordenantza honetan jasotako arau hausteetatik eratorritako zigor prozedurak Eusko Legebiltzarraren otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigor ahalmenaren edo horren ordezkari araudiaren arabera izapidetuko dira.

22. artikulua.-Arau hausteak preskribatzea.

1. Ordenantza honetan jasotako arau hausteen preskripzioa epe hauetan gertatuko da: Hiru urtean oso larriak; bi urtean larriak eta sei hilabetean arinak.
2. Arau hausteen preskripzio epea arau hausten den egunetik bertatik aurrera zenbatuko da. Arau hauste jarraituak direnean, preskribatze epea arau haustea amaitzen den unetik, jarduera bertan behera uzten denetik edo ez-egitea gauzatzen denetik aurrera zenbatuko da.
3. Preskripzioa eten egingo da, interesdunak hori jakinda, zigortze prozedura abiarazten denean. Alabaina, zigortze espedienteak hilabetetik gora igarotzen badu balizko erantzuleari egotzi ezin zaion kausaren bategatik, preskribatze epea zenbatzen jarraituko da.

23. artikulua.-Zigorrak.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 141. artikuluaaren arabera, arestian jasotako arau hausteek honako zigor hauek ekarriko dituzte:

a) Arau hauste oso larriak: 1.501 eta 3.000 euro bitarteko isuna.

b) Arau hauste larriak: 751 eta 1.500 euro bitarteko isuna.

c) Arau hauste arinak: 750 eurora bitarteko isuna.

Azken xedapena.

Ordenantza hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da, baina indarraldia ez da hasiko harik eta testu osoa argitaratu eta Tokiko Erregimenaren Oinarriak araupetzen dituen Legeko 65.2. artikuluan aurreikusitako epea igarotzen den arte. Bestalde, indarraldiak bere horretan jarraituko du aldatzen edo berariaz indargabetzen den arte.

Abanto-Zierbenan, 2013ko maiatzaren 6an.-Alkatea, Maite Etxebarria Azpiolea.